

Larramendi eta Sabino Arana

Deia, 1990-12-29.

Hemen bertan irakurri diot Amatiñori, Arana Goirik zenbateraino izan ote zuen Aita Larramendiren berri. Euskal Herriko politikari dagokionez, oso gutxi, noski; andoaindarrak foruez eta beste idatzitakoak zentsurapean luze egon baitziren Tellechea Idigoras ikertzaile iaioak orain gutxi paperak aurkitu zituen arte.¹

Baina gramatikari dagokionez?

Galdera tentagarria.

Lehendabizi jakin behar duguna da Sabino Arana hil zen arte –1903– Aita Larramendiren obretatik zeintzuk argitaratuak izan ziren.

Eta hara:

De la antigüedad del Bascuence en España, Salamanca, 1728.

El Arte de la Lengua Bascongada. El imposible vencido, Salamanca, 1729.

Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria. Questión decidida si las provincias de Bizcaya, Guipúzcoa y Alaba estuvieron comprendidas en la antigua Cantabria, Madrid, 1736.

Discurso, 1737.

Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín, San Sebastián, 1745.

Nueva demostración del derecho de Vergara sobre la patria y apellido secular de San Martín de la Ascensión y Aguirre. Refutación seria del hijo de Beasain, obra joquiseria del P. Torrubia, por don Agustín de Baztarrica y don José Hipólito de Ozaeta, Madrid, 1745.

Corografía de Guipúzcoa. Idatzia 1754, inprimatua Barcelonan, 1882.

Hau da, bada, Sabin 1903an hil zen arte Aita Manuelek idatzitako lanetatik argitaratu zioten guztia. Aipatutako zentsura dela eta, gordeta, zanpatuta, geratu baitziren, ez bakarrik garrantzi handiko bere zenbait lan, jesulaguna bera ere desagertu baitzen lagundian bertan!; honek bi urtetik behin gizon guztien zerrenda argitaratzen zuen argitalpenetatik at, "ahaztua", geratu baitzen, Aita Fitak Madrilen 1880an argitaratu zuen *Galería de Ilustres Jesuitas*-en (226-27 or.) aipatu zuen arte, eta bi urte gero Fita berak andoaindarraren *Corografía* Barcelonan 1882an argitaratu zion artean.

Beraz, Larramendiren azken obra hau izan zen, 1903an Sabinekin burututako lan erraldoia argitaratu eta *Euzko Alderdi Jeltzalea/Partido Nacionalista Vasco* sortu eta abertzaletasunaren hazia ongi finkatua utzi zuen arte.

Badakigu, beraz, Sabin Arana Goirik eskura zitezkeen Larramendiren liburuak zeintzuk diren.

¹ Hiru bolumenak: 1979an lehenengoa, *Corografía*, berritua eta landua, 322 orrialdekoa; 1973an bigarren, *Autobiografía y otros escritos*, 308 orr., eta 1983an, *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*, 351 orr., Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, eta Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., Donostiako Aurrezki Kutxaren laguntzarekin. Eta oraindik laugarren bat laster irtengo dena.

Orain goazen Arana Goiriren obran Larramendiri buruz agertzen diren aipamenak ikustera: Nik ikus ahal izan dudanez² 17 aipamen egiten ditu: Lehen hirurak (VI, XI, XVI orr.), Lino Akesolo jaunak eginiko lehen hitzaurrean daude, eta honek dion bezala, Sabinekin dagoeneko Larramendiren akatsik handiena salatzen du: bere hiztegian hitz berriak sortzeko zuen joera okerra; konturatzen da Sabin, hori euskara gitxiesten zutenek nahasteko eta bere bizkar parre egiteko zela gehienetan. Sabino Arana oso zen zehatza, eta gogorra ere, eta Astarloa ere salatzen du, Moguelen bide zuzena hartu beharrean Larramendiri jarraitzeagatik (53 orr.). Kexa hau aipatzen du Sabin berak Larramendik duen jarreraren aurka (76 orr.). Erdal hitzak euskaldunak bezala hartzen dituelako, eta deribatuekin gauza berdina egiten duelako (217 orr.). Aitortzen du Sabinekin, Aita Aranek esan bezala, Larramendi izan zela idazkera fonetikan oinarritu behar duelaren ortografiari dagokion printzipioa, "baina egia dena da, ez zuela oinarritzeko printzipio honekin beharrezko zen legeriarik sortu" (816 orr.). Bestalde, "gogo" hitza "espíritu" bezala onartu beharrean, beste bat inbentatzeari eman zion, eta ez zuen euskal seneko bat sortzen jakin (954 orr.). Pasadizoko aipamen bat (1.136 orr.). Berdin (1.230 orr.). "Guipuzcoa" hitza dela eta, (buruz ari da Sabino), ez daki Larramendirena den ala ez, baina mereziko luke hala izatea!, norbaitek etimologia aldetik "Guipuzcoa": Gu-itx-puzkatu, bezala hartu duela (1.801 orr.). Etimologiak jakinduria handia eskatzen duela dio, eta mantso ibili behar dela lan honetan, "charadas" edo asmaketak egiten diren arinkeriarekin baino serioago egin behar dela lan, zer dira bada "charadas" besterik Larramendik, Henaok eta beste batzuk egiten dituzte etimologiak? (1807 orr.). "... Como Larramendi, Novia de Salcedo y otros muchos creyeron que las etimologías eran juegos..." (1808 orr.). "Tenemos una copiosa biblioteca sobre el euzkera, ¡cuán poco de bueno en toda ella!... sobre la mentira nunca se cimentó la ciencia, ni sobre el engaño se edificó el verdadero patriotismo" (1810 orr.). Bizkaia-ri dagokion etimologiak, txarrak gehienak –Larramendirena tarteko–: "En resumen, los que han dado etimologías de *Bizkaya* discutibles son, por orden de corrección: Iturriza, Moguel y Oihenart; los que han traslucido la verdadera, Covarrubias, Mercator y Venegas, ningún vasko" (1813 orr.). Sobre la reforma de la numeración euzkérica, "los otros tratadistas (Larramendi y van Eys, etc., que han investigado su origen y que yo conozco han opinado sobre el tal "berri" (nuevo) (1877 orr.). Nombre de la semana: *aste*: "No sé si Larramendi le señalaría algún otro origen. Lo poco, muy poco, que he leído de este autor me ha quitado las ganas de leerle más" (2361 orr.).

Hara, bada, hemen, Sabino Aranek Larramendi dela eta egiten dituen aipamenak.

Alde batetik esan nahi du, gehien jota ere ez zuela hizkuntza aldetik honen: *De la antigüedad del vascuence en España* (1728). *El arte de la lengua*, edo Gramatika (1729), eta *hiru hizkuntzetako Hiztegi handia* (1745) besterik ezagutzen. Eta, bestalde, politikari dagokionez, behar bada. *Corografía* (1882), baina hau ezagutu izan bazuen politikari derizkion iritziak agertuko zituen bere lanetan.

Baina, esan zuena, Larramendiren *Hiztegian aurkitutako* okerrean bakarrik geratzen da Sabino Arana: hau da penagarria.

Aipamen sakonago bat merezi zuela uste dugu gaur; baina Sabinorenak ere bere denborakoak ziren, eta gaur orduko erizlari berari kritikak egiten dizkiote hainbat

² Bigarren, eta orain arte azken, edizioa Donostian. *Sendoa* Argitaldaria 1980an egina.

alorretan. Normala den bezala. Orain gizaldi bat edo bi lan zabal eta sakonak, biak egiten dituzten gizon handiei hutsak aurkitzea zilegi da.

Bi munduan aritu ziren gainera, batez ere gure herriaren Historia eta Hizkuntzaritzaren alorretan;

Larramendi: 1690-1766

Sabino Arana Goiri: 1865-1903

Diferentzia ez da mende batekoa, mende t'erdikoa baizik:

1865 - 1903

1690 - 1766

175 - 137